

3. Eduki digitalen sorkuntza

3.1. Eduki digitalen garapena:

3.1.1. Eduki digitalak sortu eta kudeatu

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Eduki digitalen
sorkuntza.
Eduki digitalen
garapena.**

Eduki digitalak sortu eta kudeatu



CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUA

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Webgunean eskuragarri dauden multimedia edizioko tresna nagusiak eza gutzea.

Lan bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen diren tresnak baloratzea.

AURKIBIDEA

- Tresna motak:
 - Aurkezpenak sortzeko
 - Diagramak sortzeko
 - Kartelak, posterrak eta argitalpenak sortzeko
 - Audio eta bideoak sortzeko eta kudeatzeko
 - Blog eta orri pertsonalak sortzeko eta kudeatzeko
- Gehiago jakiteko...

AURKEZPENAK SORTZE

KNOVIO

- Audio eta bideo formatuko iruzkinak aurkezpenetan txertatu daitezke.
- E-maila URL baten bidez zabaldu daitezke.
- Bideo formatuko PPT-ak egiteko gomendatua.

PREZI

- Aurkezpen dinamikokoak sortzeko, mota guztietako baliabide multimediatikoak txertatu daitezke.
- Gai baten aurkezpena bideo bitartez egiteko gomendatua.

GOOGLE AURKEZPENAK

- Aurkezpenak modu sinkronoan eta taldean egitea ahalbidetzen du.
- E-maila hainbat banaketa-kanalen bidez partekatu daiteke.
- Talde-aurkezpen bat lantzeko gomendatua.

AURKEZPENAK SORTZEKO

SWIPE



Power Point aurkezpenak igotzeko eta inkestak diapositibetan txertatzeko balio du. Esteka bat partekatuz, galderak egin daitezke eta erantzunak momentuan eta anonimoki jaso. Entzuleen partehartzea behar duten aurkezpenetarako gomendatua.

SWAY

Txosten eta aurkezpen interaktiboak sortzeko aukera ematen du, interfaze grafiko intuitiboa dauka. Swayrekin egindako lanak partekatu egin daitezke, hartzaileek alta eman edo ezer deskargatu behar izan gabe. Power Point-en sortutako aurkezpenari web-orri erako formatu bat emateko gomendatzen da.

DIAGRAMAK SORTZEK

DRAW.IO

Konplexutasun handirik eskatzen ez duten diagrama azkarrak sortzeko gomendatzen da.

- Emaidza profesionala.
- Txantiloiei eta objektu ugari.
- Diagrama URL bidez partekatzea eta web orri edo blog batean sartzea ahalbidetzen du.

LUCID CHART

Kanpoko elementuak erabiltzea eskatzen duten konplexutasun handiko diagramak sortzeko gomendatua.

- Nabigatzailetik diagramak sortzea, programarik instalatu gabe.
- Gorde Google Drive, OneDrive edo disko gogorrean.
- Formatu askotara esportatzea ahalbidetzen du.

GLIFFY

Kanpoko elementuak erabiltzea eskatzen duten konplexutasun handiko diagramak sortzeko gomendatua.

- Diagrama konplexuak sortzea.
- Hainbat formatutara esportatzea.
- Oso integrazio ona Googleren produktuekin.

KARTELAK, POSTERRAK E ARGITALPENAK SORTZE

CANVA

Argitalpenetarako era guztietako kartelak eta posterrak sortzeko aukera ematen du. Tresna osoa da, izan ere, aurkezpenak eta diseinu grafikoko beste elementu batzuk sortzeko aukera ematen du, programarik instalatu beharrik gabe. Kartel deigarriak sortzeko gomendatzen da, grafismoari buruzko ezagutzarik izan gabe.

GENIALLY

Tresna oso moldakorra, mota guztietako argitalpenak sortzeko aukera ematen duena, horietan interaktibitatea eta animazioa gehitzeko aukerarekin. Egungo web-formatu guztietara egokitzen da, eta emaitzak sare sozialen eta beste gailu batzuen bidez partekatzeko aukera ematen du. Sortu beharreko argitalpenetan animazioak eta interaktibitatea gehitzeko gomendatzen da.

KARTELAK, POSTERRAK E ARGITALPENAK SORTZE

LUCIDPRESS

Web-nabigatzailetik argitalpenak, kartelak eta beste elementu grafiko batzuk diseinatzeko aukera ematen du. Google produktuekin integrazio bikaina, Drive-rekin zuzeneko konexioa ahalbidetuz, bertan lortutako emaitzak geroko erabilerarako gordez. InDeisgnekin sortutako lanak inportatzeko eta web bidez editatzeko gomendatzen da.

PIKTOCHART

Oso infografia ikusgarriak sortzeko aukera ematen du, diseinu- edo maketazio-ezagutzarik gabe. Txantilo ugari eskaintzen ditu, berezko elementu grafikoak gehitzeko aukerarekin. Webgune batean deskargatzeko edo sartzeko infografiak sortzeko gomendatzen da.

TIKI-TOKI

Web ingurune batean partekatzeko denbora-linea interaktiboak sortzeko aukera ematen du. Irudiak, bideoak eta 3D efektuak gehitzeko aukera eskaintzen du. Kronologia bisualak sortzeko gomendatua.

AUDIO ETA BIDEOAK SORTZEKO ETA KUDEATZEKO

AUDACITY

Audioa editatzeko open source tresna. Plataforma anitzekoa da, eta hainbat formatutara esportatzeaz gain, soinu-efektuak editatzeko, manipulatzeko eta gehitzeko aukera ematen du. Audioak editatzeko gomendatzen da, eta funtzio errazetatik irtenbide profesionaletara hartzen du.

YOUTUBE

Bideoak gordetzeko eta web bidez partekatzeko plataforma. Bideoak kudeatzeko aukera eskaintzen du, baita bistaratze-analitikak eta erabilera-estatistikak erakusteko ere. Webgunean bideo bat partekatzeko eta sarbidea kudeatzeko gomendatzen da.

ONLINE VIDEO CUTTER

Web nabigatzailetik bideo bat azkar moztu edo biratzeko aukera ematen du, zerbitzu batean alta eman edo programa bat deskargatu beharrik gabe. Grabatutako bideo baten oinarritzko edizioa egiteko gomendatzen da.

AUDIO ETA BIDEOA SORTZEKO ETA KUDEATZE



HIPPO VIDEO

Bideoa online editatzeko aukera ematen du, programarik instalatu behar izan gabe. Editatzeko aukera asko eskaintzen ditu, baita bideoa amaitu ondoren deskargatzeko aukera ere. Webgunetik zuzenean bideo bat sortzeko edo editatzeko gomendatzen da.

BEARAUDIO

Audio-fitxategietan efektuak sortu, editatu eta gehitzeko aukera ematen du. Nabigatzailetik zuzenean funtzionatzen du, eta fitxategia ordenagailuaren disko gogorrean gordetzeko aukera ematen du. Audioa editatzeko edo manipulatzeko gomendatzen da, programa espezifikorik instalatuta eduki beharrik gabe.



BLOGAK ETA ORRI PERTSONA SORTZEKO ETA KUDEATZE

http://



WORDPRESS

Blog edo web-orri bat sortzeko aukera ematen du, edizio-aukera askorekin, web-maketazioaren ezagutzarik eduki beharrik gabe. Doako web-ostatzea eskaintzen du, bere domeinua eta analitika-tresnak erabiliz, bloga bilaketa baten lehen posizioetan kokatzeko. Blog profesional bat sortzeko gomendatua, etorkizunean domeinu propio batean kokatzeko ideiarekin.

GOOGLE SITES

Googlaren tresna honek sortutako multimedia edukiak gorde eta argitaratzeko webgune simple bat sortzeko balio du. Drive-eko zure fitxategiei lotuta, klik gutxitan web portfolio pertsonal bat sortzeko gomendatua.

PORTFOLIUM

Google, Prezi eta LinkedIn tresnekin sinkronizatutako portfolio pertsonal bat sortzeko aukera ematen du. Gainera, sare sozial propio baten bidez elkarreragiteko aukera ematen du, ezagutzak eta trebetasunak partekatzeko. Enpresei eta mundu akademikoari lotutako portfolio digital bat sortzeko gomendatzen da.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu